

Jainkoa pisatu nahi dute

Deia, 1983-06-13.

Jainkorik badela eta ez dela, aspaldiko lehia da hau.

Arima-ren berbera.

Irakurria dut nonbait eta aspaldi sinesgabe zen batek hiltorian zegoen norbait baskula handi batetan etzan eta hil zain geratu zela, eta honi azken arnasa jalgi zitzaionean ez omen zela orratza enteratu.

Zail egiten zaio gaurko gizakiari ikus-neur-pisatu ezin denaz sinestea.

Hala ere, bada oraindik zientzia hutsez uler ezin den gauza franko. Zientzia berbera ere hoietakoa dugu: gizonak bikainki arrazoi bidez finkatua bada ere, badirudi egiazki zientifikoa den guztia ezin dela azken finean fisika eta kimika bidez esplikatatu.

Hau ez dut nik esaten, noski, Britainia Haundiako biologo ospatsua den Alister Hardy jaunak baizik:¹ "Dударik gabe, gizakiaren gorputza, fisikoki begiratuta, kimik-makina da; baina hau ez da historia osoa, zeren neurologo handiak diren Sir Charles Sherrington, Sir John Eccles eta Lord Brain-ek diotenez, gogoari dagozkionak beste mota ezberdin batetakoak izan daiteken, nolabait *oraindik* ondo ezagutzen ez dugun bidetik sistema fisikoari lotuak. Gogo eta gorputz arteko harreman misterioitsuak ez daude oraindik erabakiak".

Pentsa daiteke, burmuina dela energia eta gogoaren arteko harremanaz arduratzen den organoa.

Darwin aipatzen da maiz gai honetaz ari garenean, *hautespen naturalean* finkatuta dagoen *eboluzioa* dela eta.

Alister Hardy-k teoria hau onartzen du, noski, baina ez du uste hautespen natural hori guztia zorte soilean finkatua dagoenik. Gizakia, animalietariko bat da, baina bereiztasun batekin: honen egituran ageri den hautespena burmuinean oso azkarra izan den eboluzioari lotua dago; hemendik, arrazoin bideko burua eta mintzairaren bilakaera: bi ahalmenak elkarrekin eboluzionatu dute, noski, eta esku-eskuko prozesu bakarra bezala. Baina ba da hemen oraindik harrigarriagoa den zerbait: hemendik jaio diren hizkuntz-komunikabideek sortu dituzten indarrak *eboluzioaren mekanismoa bera aldatu dute*.

Harrezkero, hautespen naturalak agintzen duenetik at dagoen beste sistema barruan aurkitzen dela.

Garrantzia handia ematen dio hemen egileak gizartearen eboluzioan *tradizioak* sortu dituen ondorioak. Huxley-k Darwinen mendeurrena ospatzeko Chicagoko Unibertsitatean 1959an egindako hitzaldian: *eboluzioaren psiko-sozial fase berria* bezala aipatu zuena.

Jainkorik baden edo ezaren lehiak aurrera jarraituko dute, eta izango dira oraindik arima pisatu nahiean dabiltzan sinesgabeak.

¹ *The spiritual nature of man*. Clarendon Press. Oxford, 1979.